

Diru iturriak

Hasierako diru sarrerak

- Gure aportazioak: taldeko bakoitza 6.500 aportatuko dugu.
- Diru laguntzak:
 - Gazteei zuzenduta dauden diru laguntzak
 - Emakume izateagatik ematen dituzten diru laguntzak
 - Guztira 2600 euro

$$6.500 \times 4 = 26.000 \quad 26.000 + 2.600 = 28.600 \text{ euro}$$

Diru sarrerak

Gure bezeroek prest daude ordaintzeko segurtasuna, iraunkortasuna eta jasangarritasuna bermatzen dituen material baten truke. IkasMag arbela eta haren errotuladore berezia epe luzeko inbertsioa dira, ohiko arbel eta errotuladore toxikoen gastu errepikaria murrizten dutelako.

IkasMag-en diru-sarrerak bi ordainketa motatan oinarritu ditugu:

1. Ordainketa bakarreko diru-sarrerak

Bezeroek behin bakarrik ordainduko dituzten salmentak:

- Arbel magnetikoa.
- Errotuladore bereziak.
- Ordezko piezak (imanak, euskarriak, torlojuak...).
- Ikasgela-paketeak (arbelen loteak deskontuarekin).

Diru-sarrera hauek lotuta daude aktiboen salmentara eta erabileragatik ordainketara.

2. Ordainketa errepikariak

Hezkuntza zentro batzuek nahiago dute urteko aurrekontuarekin lan egin edo mantentze jarraitua izan:

- Urteko harpidetzak: arbelak berrikusteko, errotuladore berriak jasotzeko edo piezak ordezkatzeko.
- Mantentze-zerbitzuak: zentro handientzat, urteko kuota batekin.

Horrek enpresari diru-sarrera egonkorrak ematen dizkio eta bezeroari segurtasun handiagoa.

Nola sortu ditugu diru sarrerak?

IkasMag enpresan honako iturri hauek erabiltzen ditugu:

- Aktiboen salmenta: arbelen salmenta da diru-sarrera nagusia.
- Erabileragatiko saria: errotuladore eta ordezeko materialen erosketa.
- Harpidetzagatiko saria: mantentze urteko plana edo errotuladoreen ordezkapen automatikoa.
- Lizentziak: teknologia beste fabrikatzaile batzuei eskaintzea posible izango litzateke epe luzera.

Prezio mota

Produktuaren ezaugarrien arabera, bi prezio estrategia erabiliko dira:

- Prezio finkoak: arbelak, kitak eta errotuladoreak. Hezkuntza sektoreak normaltasunez erabiltzen dituen prezio egonkorak.
- Prezio dinamikoak: lote handietarako deskontuak, kanpaina bereziak edo hezkuntza-departamentuekin egindako eskaintza bereziak.

Diru-sarrera nagusiak eta haien partaidetza

IkasMag proiektuak lau diru-sarrera nagusi izango ditu. Portzentajeak merkatu-ikerketan eta hezkuntza-sektorearen ohiko gastu ereduan oinarrituta kalkulatu dira.

1. Arbel magnetikoen salmenta — %55

- Gure diru-sarrera nagusia izango da. Ikastetxe publiko eta pribatuen gehiengoak arbela erosten du behin, eta epe luzerako inbertsioztat hartzen da.
- Produktu nagusia denez, fakturazioaren erdia baino gehiago hortik etorriko da.

2. Errotuladore berezien salmenta (ordezkoak) — %20

- Errotuladore bereziek erabilera luzea badute ere, zentroek urtean behin edo bitan berritu beharko dituzte.
- Erabilera errepikaria duten salmentak izan ohi dira.
- Jasagarritasuna eta ez-toxikotasuna punturik indartsuenak dira.

3. *Ikasgela-kit edo loteen salmenta (deskontoarekin) — %15*

- Ikastetxe askok lote handiak erosten dituzte ikasgela osoak aldatzeko.
- Salmenta puntualak dira, baina diru-sarrera handiak sortzen dituzte.
- Prezio dinamikoak aplikatzen dira (deskontoak kopuruaren arabera).

4. *Mantentze eta ordezkapen urteko harpidetzak — %10*

- Bezero guztiek ez duten arren kontratatuko, jarraitutasuna ematen du.
- Harpidetzak diru-sarrera egonkorra eta aurreikusgarria ematen dute.
- Zerbitzua: arbelak berrikustea, iman-polen ordezkapena, errotuladore berriak...